322 /2026 EBAZPENA, maiatzaren 21ekoa, Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Zuzendari Nagusiarena, "Egonaldiak 2026-27", Nafarroako ikastetxeetako Lehen eta Bigarren Hezkuntzako A, B eta D ereduetako ikasleei zuzendutako euskarazko murgiltze programarako deialdia onartzen duena 2026-2027 ikasturterako.

Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzuak txosten bat aurkeztu du eta deialdi hori onartzeko proposamena egin du, 2027ko urtarriletik ekainera bitartean euskaraz murgiltzeko programetarako gehienez ere 1.140 plaza proposatuz, B eta D ereduetako Lehen Hezkuntzako 4. mailako eta Bigarren Hezkuntzako 1. mailako eta A ereduko Lehen Hezkuntzako 6. mailako eta Bigarren Hezkuntzako 1. mailako ikasle-taldeentzat.

Hezkuntza Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duen azaroaren 15eko 245/2023 Foru Dekretuak ematen dizkidan ahalmenez baliatuz, honako hau

EBATZI DUT:

1.- Nafarroako ikastetxeetako B eta D ereduetako Lehen Hezkuntzako 4. mailako eta Bigarren Hezkuntzako 1. mailako eta A ereduko Lehen Hezkuntzako 6. mailako eta Bigarren Hezkuntzako 1. mailako ikasleei zuzendutako “Egonaldiak-Estancias en euskera 2026-27” euskarazko murgiltze programarako deialdia onartzea. Deialdia 2026-2027 ikasturtean eginen da, eta oinarriak ebazpen honen eranskinean jasota daude. Egonaldiak, 2027ko urtarrilaren eta ekainaren artean egingo dira.

2.- Ebazpen hau eta bere eranskina www.educacion.navarra.es (Hezkuntza-Berriak) eta wwww.navarra.es (Tramiteak) helbideetan argitaratzeko agintzea.

3.- Deialdi honen eta berori aplikatzeko administrazio-egintzen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izanen zaio Hezkuntzako Kontseilariari, hilabeteko epean, errekurritutako egintza jakinarazi, argitaratu edo jendaurrean jarri eta hurrengo egunetik aurrera.

4.- Ebazpen hau eta bere eranskina Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren kontu-hartzailetza delegatuari, Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzuari, Hezkuntzako Ikuskapenaren Zerbitzuari, Euskara Atalari, Kudeaketa Juridiko Administratiboaren Atalari, Kontabilitate-Kudeaketa Bulegoari, “Centro Navarro de Aprendizaje Integral, S.A” (CNAI)-ri eta Lekarozko "Valle de Baztan " gazte aterpetxeari helaraztea, dagozkion ondorioak izan ditzan.

Iruñean, bi mila eta hogeita seiko .

HEZKUNTZAKO ETA LANBIDE
HEZIKETAKO ZUZENDARI NAGUSIA

Gil Sevillano González